

860/2022 EBAZPENA, apirilaren 29koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Erreumatologiako Zerbitzu Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

AURREKARIAK:

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerentearen apirilaren 26ko 877/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Erreumatologiako Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2021eko uztailaren 22ko EHAA 145 zk. eta 2021eko uztailaren 29ko BOE 180 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2021eko abuztuaren 19an amaitu zen.

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerentearen abuztuaren 24ko 1629/2021 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetza Estatu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Erreumatologiako Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Barakaldo, 2022ko apirilaren 29a



Osakidetza
EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES ESI
OSI EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES
GERENTZIA
GERENCIA

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako zuzendari gerentea,
Maria Luz Marques Gonzalez



Osakidetza

EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETA ESI

OSI EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES

I ERANSKINA

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESI

ERREUMATOLOGIAKO ZERBITZUBURU SANITARIOA

BEHIN BETIKO ZERRENDAK

Onartuak:

D. Fernando Pérez Ruiz jr.

Baztertuak:

Inor ez



II. ERANSKINA

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESI

ERREUMATOLOGIAKO ZERBITZUBURU SANITARIOA

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua.

Titularra: Edurne Omaetxebarria Legarra and. (Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko zuzendari medikoa).

Ordezkoa: Alejandra Gil Molet and. (Bibao-Basurtu ESIko zuzendari medikoa).

Lehenengo batzordekidea.

Titularra: Maider Garmendia Zallo and. (Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Zerbitzu medikoetako zuzendariorde medikoa).

Ordezkoa: Ainhoa Epalza Bueno and. (Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Zerbitzu kirurgikoetako zuzendariorde medikoa).

Bigarren batzordekidea

Titularra: Concepcion Fito Manteca and. (Nafarroako U. Ospitaleko Erreumatologiako zerbitziburua).

Ordezkoa: Francisco Javier de Toro Santos jn. (Hospital A Coruña Erreumatologiako zerbitziburua).

Hirugarren batzordekidea

Titularra: Jose Miguel Nolla Solé jn. (Hospital de Bellvitge Erreumatologiako zerbitziburua).

Ordezkoa: Jose Luis Andreu jn. (Hospital Puerta de Hierro Erreumatologiako zerbitziburua).

Laugarren batzordekidea (IVAPek proposatutakoa)

Titularra: Jaime Calvo Allen jn. (Araba ESIko Erreumatologiako zerbitziburua).

Idazkaria:

Titularra: Esther Olaetxea Urizar and. (Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko Pertsonaleko zuzendariordea).

Ordezkoa: Amaya de Allende Achalandabaso and. (Barrualde-Galdakao ESIko Pertsonaleko zuzendaria).